

Gure Gida

LOMCEri aurre egin eta
Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitzeko

*Euskal Herrian
gure hezkuntza eraiki!*



LOMCEri EZ!

gurehezkuntzaeraiki.wordpress.com

1. Aurkezpena

Zer da esku artean duzuna?

Gure Gida zirriborroa osatu dugun eragileok 2013ko ekainean egindako agerraldian ondoko konpromisoa hartu genuen: inposiziorik ez onartu, LOMCEri aurre egin eta gure herrian aplika ez dadin estrategia komunak lantzea eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza sistema propioaren bidean lan eginez bururaino eramatea. Bi norabideak elkar elikatuz.

Konpromiso horri erantzun nahi dion ariketa konpartitua da esku artean duzun gida.

Zergatik eta zertarako?

Arestian aipatutako bi norabideez gain nahi eta behar dugun hezkuntza propioa eraikitzeko ondorengo ardatzak ere adostuak ditugu:

- Ikasle guztien garapen osoa bermatuko duen heziketa inklusibo, konpentsatzailea, integratzailea eta hezkidetzala. Aukera berdintasunean, ekitatean eta kalitatean oinarritua.
- Euskal Herriarentzako curriculum propioa.
- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen hizkuntza eredu bakarra.
- Hezkuntza komunitate zein herritarren partaidetza demokratikoa hezkuntzaren gaineko erabaki eta kudeaketan.
- Euskal Herrirako aurretiaz aipatutako puntuak barnebilduko dituen marko normatibo propioa.

Behin norabidea eta ardatzak finkatuak izanik, asmoa tresna eraginkor eta erabilgarria sortzea izan da. Garbi izanik tresna honek hiru helbururi erantzun behar diola:

- LOMCEk suposatzen duen inposizioari modu kolektiboan erantzutea.
- Ez aplikaziorako bidea zabaltzea
- Eta etorkizuneko hezkuntza propioaren garapenean urratsak ematen joatea.

Nola eta noiz?

Gure Gida zirriborro honek eragileon arteko adostasunak barnebiltzen ditu, eta gaurko egunetik aurrera guztion artean maila teorikoan zein praktikoan osatzeko erronka du. Gure Gidak tresna dinamikoaren izaera du, idatzitakotik praktikara eramaterako orduan tokian-tokiko errealitate, erritmo, dinamika zein apustuei laguntzeko bitartekoa izan nahi baitu.

Parte hartze prozesua abian da, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak martxan jarritz. Prozesu honetan hezkuntza komunitate eta herritar ororen inplikazioa sustatzeko mekanismoak ere (ikastetxe eta herri-auzo asanbladak, blogak, eragile eta antolakundeekin bilerak...) martxan dira jada.

2. Kokapena eta testuingurua

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du norbanakoaren eta herri baten garapenean, baita jendartea kohesionatzeko ere (pentsaera guztiak errespetatuz, doktrinamendurik gabe...). Horregatik guztiagatik, hezkuntzak lehentasun soziala izan behar duela deritzogu eta, egungo egoerari buelta emanez, beharrezkoak dituen baliabideak eta inbertsioak jaso behar ditu.

Aldiz, gure herrian, Euskal Herrian, hezkuntza espainiar eta frantziar estatuen esku egon da eta dago, eta beraien behar eta nahien arabera garatu dute. Gainera, azken hamarkada luzeetan inposaturiko hezkuntza lege eta erreformek euskal herritarrok behar eta nahi dugun hezkuntza sistema mugatu eta baldintzatu dute.

Norabide horretan LOMCEk urrats berriak ematen ditu, Hego Euskal Herriko hezkuntza erabat mugatuz eta herritarrok nahi dugun kontrako norantzan bideratuz. Aurrez ere hainbatetan adierazi dugun moduan antidemokratikoa, zentralizatailea, doktrinatailea, uniformatailea, merkantilista, atzerakoa, segregatailea eta elitista dela deritzogu.

Hezkuntza lehentasun soziala izanik eta herri baten garapenerako gakoa, ezinbestez hezkuntza komunitate eta herritar ororen inplikazioa beharrezkoa dugu LOMCEri aurre egin, gure ikastetxe eta herrietan ez aplikatzeko eta Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntzari atea irekitzeko.

Bide honetan, hezkuntza komunitatea eta jendartea erronka honi aurre egiteko eta eraldaketa honetarako subjektu aktiboak izatea ezinbestekoa izango dela uste dugu. Lekuan leku garapen propioa izango duen errealitate anitzak aintzat hartuta.

Beraz, GIDA honek LOMCEri aurre egiteaz gain LOMCEren aplikazioa ekiditeko tresna eta gure hezkuntza sistema propioa garatzeko abiapuntua izan nahi du.

Ez gara hutsetik abiatzen, herri honetan badira adostasun zabala duten hezkuntza mailako ekimenak, baita tokian-toki garapen praktikoa dutenak ere.

Euskal Herritarron Hezkuntza Eskubideen inguruko adostasun zabala landu dugu.

1. Euskal Herrian bizi den herritar orok, hots, euskal herritar guztiek, nazioarteko oinarrizko eskubideen hitzarmenetan jasotako eskubideetan oinarrituta, Euskal Herrian bertan edozein ikasmaitan edota ikas arlotan ikasteko eskubidea dute, eta ez da inor baztertuko arrazoi politiko, ekonomiko, sozial, jatorriarekin edo sexuarekin lotutako, ideologiko edo akademikoren bat tarteko edota urritasun fisiko edo psikikoren bat izateagatik.
2. Euskal herritar orok eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, ikas gune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du.
3. Euskal herritar orok curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea du, eta bertako nahiz munduko jendarte zein kultur adierazpideak kontuan hartuko dira.
4. Euskal herritar orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, parekidetasuna lortzeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea.
5. Euskal herritar orok hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea du: eskubide demokratiko guztiak (adieraztekoa, biltzekoa...) bermatuz, eskola komunitatearen pluraltasuna kontuan hartuz, antolaketa zein kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea gauzatzuz, eta eskola komunitatea osatzen duten pertsonen eta herritarren hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea bermatuz.
6. Euskal herritar orok eskubidea du euskara eta jakintza ardatz izango dituen Euskal Unibertsitate Sistema, Euskal Herriaren beharrak aseko eta bideratuko dituen, izateko.
7. Euskal herritar orok eskubidea du hezkuntzaren bidez bere ahalmen guztiak garatzeko, pertsona kritiko eta aske izateko bidean.
8. Euskal Herriko ikasguneetan sartzen diren etorkin berriei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatuko zaizkie.
9. Ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitateak bere Hezkuntza Proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea du.
10. Hau guztia posible izan dadin, euskal herritarrek hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dute. Hau da, Europako hezkuntza esparruan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea du.

Eta hauen garapenerako nahi dugun hezkuntza sistemaren hainbat ardatz marraztuak ditugu:

1. Eredu deszentralizatua eta zentrozen autonomia (antolaketa, ekonomia, ebaluazioa...) bultzatuko duena.
2. Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituena.
3. Kritikotasuna ardatz izango duena.
4. Pedagogia berritzaileetan eta euskal curriculumean oinarritu.
5. Hezkidetzak helburu duena.
6. Aukera berdintasunean ipar duena. Inklusiboa.
7. Parte hartzailea eta demokratikoa izango dena.
8. Laikoa. Mundu ikuskera eta sinesmen guztiak errespetatzen dituena
9. Bizi arteko ikasketak ardatz duena. Integrala.
10. Elkarbizitza eta lankidetzak bultzatzen dituena.

Hau guztia adostua izan arren, LOMCEk inposatu nahi digun errealitatea kontrako norabidean kokatzen da eta kontrako helburuak ditu. Gainera, bere helburuak aurrera eramateko espainiar gobernuak Lege Organiko moduan inposatu nahi du eta erabateko kontrol mekanismoak ezarri. Hezkuntza erreformaren edukia eta inposizio saiakera Euskal Herriko hezkuntza komunitateak adierazitako behar eta nahien guztiz kontra doa. Hau dela eta, guztiz zilegi eta beharrezko deritzogu gehiengo oso zabal baten interes eta nahien aurka inposatu nahi den neurri honen aurka egitea, betetzeari uko egiteko desobedientzia eta gure nortasun, behar eta nahietan oinarrituriko alternatibaren eraikuntza bultzatzea, jada hainbat eremu eta tokitan egiten ari den moduan.

Honetarako ordea, aurrez esan bezala ezinbestekoa izango da hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztion eta jendartearen inplikazioa eta parte-hartze aktiboa. Prozesu honetarako laguntza izan nahi du hain zuzen ere GIDA honek.

3. Ildo pedagogikoa

3.1. Eskubide murrizketen aurrean hezkuntza eskubidea bermatzea dagokigu erantzunkidetasunetik!

Globalizazioak eragindako desabantaila egoerei, belaunaldi berriak beraien testuinguruan errotzeko zailtasunei eta helduarora igartzeko oztopoei erantzun integrala eman behar zaie, eta honek garapen eredu berria eraikitzeko premiaren aurrean kokatzen gaitu. Garapen horren motorra hezkuntza ikusten dugu.

Pertsonen eta jendartearen garapena prozesu kolektiboa da ez prozesu indibiduala. Pertsonen eskubideak bermatu, beharrei erantzun eta hauek komunitateko kide gisa garatzeaz gain, komunitateko beharrak ere ardatz gisa hartu behar dira. Hezkuntza eskubidea betetzea eta pertsonen nahiz jendartearen garapena gure nortasun elementuei lotutako lurraldean eta markoan kokatzen dugu. Beraz, Euskal Herritik eta Euskal Herrirako eraikitako hezkuntza sistemak kontuan hartu behar ditu bertako herritarrak eta hauen beharrak. Etorkizuneko pertsona eta herritar gisa norbere aukera guztiak garatzeko eta bizi den komunitateko partaide aktibo izateko. Horrela, bada, ibilbide horrek euskarari eta euskal kulturari murgiltzea ahalbidetu beharko luke, baliabideak eta aukera egokiak eskainiz herritar orori.

Hezkuntza bizitza osoan zehar eman den etengabeko ikaskuntza prozesua da. Pertsonaren eta kolektiboaren garapena etengabekoa delako, bizitzako etapa ezberdinetan zehar ematen dena eta askotariko eremuetan. Ikaskuntza luze (LifeLong Learning) eta zabal (Life Wide Learning) eran ematen dena. Prozesu hau ez da soilik norbanakoaren erantzukizuna, baizik eta jendarte osoarena.

Oinarrizko Hezkuntzara etorrira, garapen pertsonal eta kolektibo baten bermea izan behar da hezkuntza. LOMCEk ikasleen aukerak murriztu nahi dituen eran, gure hezkuntza politika, praktika eta erantzukizuna Hezkuntza eskubidea bermatzera bideratu behar da. Jendartean ditugun desabantaila eta desoreka sozial, ekonomiko, pertsonal, kolektiboak... konpentsatzea lortu behar dugu. Haur eta gazte orori aukera berdinarik izateko baldintzak sortuz. Nazioarteko adierazpen eta hitzarmen guztien arabera, oinarrizko hezkuntzaren funtsezko xedeetako bat kohesio soziala bermatzea delako.

Halaber, Hezkuntza Sistemak ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du, erantzukizun osoa dauka, baina ez da bakarra. Ikasleen, etorkizuneko herritarren, garapen osoaren erantzule ezberdinek parte hartu behar dute hezkuntza eskubidea bermatu nahi badugu. Erantzule ezberdinez dihardugunean, administrazioak (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak, Aldundiak, Udalak),

komunitateko partaide eta eragileak (hezkuntza eragileak, eragile sozialak, eragile politikoak..) eta familiak ditugu hurrenez hurren. Bakoitzak bere erantzukizun mailatik eta jardunetik.

3.2. Eskola inklusiboa (ekitatea eta kalitatezko hezkuntza guztiontzako); eskola kulturaren indartzeko unea da!

Hezkuntza eskubidea oinarri izanik, kalitatezko hezkuntza ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duena litzateke. Horretarako, hezkuntzako langileek ikasle guztien ikastea hobetzeko beraien artean egiten duten praktikaz sistematikoki hausnartu behar dute, egunerokotasuneko eta gertuko jendarteari erantzun egokia eman eta etengabeko berrikuntza kultura eraikiz.

Hezkuntza eskubidea eta aukera berdintasunaren markoan, kalitatezko eskolaz ari gara ikasle guztien ikastea hobetzen duenean, guztion arrakastan oinarritutakoa, norbanakoaren potentzialtasuna bizitza guztian zehar garatzeko aukera bermatzen denean.

Kalitatezkoa izango da ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezainbeste garatzen dituztenean. Horretarako beharrezko zerbitzu, bide eta bitartekoak eskaini behar dira. Ikastetxeak ardura du beharrezko baldintzak sortzeko. Baldintza horiek, ikasle guztien garapena, ikaskuntza eta partaidetzarako hezkuntza-erantzunak erraztu eta ahalbidetzen dituzten espazio sozialekin lotuta daude.

Argi eta garbi ikusten da, orain arte ez bezala, Eskola Inklusiboa, hezkuntza politikaren eta sistemaren ikuspegia eta iparra izan behar dela. Ildo estrategikoa izatea baino, sistemaren kultura izan behar da. Berariaz, Eskola inklusiboak jendartegune demokratiko eta parte-hartzaileak eraiki behar dituelako, sozialki aberastuak; ikaskuntza erraztu eta elkarrekin bizitzearen, ikastearen, komunikatzearen; elkarrekin harremanak izan, elkarrekin jardun eta gainerako jendarte-taldeetako kideengana hurbiltzearen garrantzia azpimarratuko dutenak.

3.3. Hezkuntza-langileen taldea: ikaskuntza komunitate profesionalak eta berrikuntza indartu

Aurrekoaren ildotik, eskola inklusiboaren ardura nagusietako bat hezkuntzako langileek dute. Ez beraiek soilik, jakina. Kalitatezko eskolek ikasleen ikastea bermatzeaz gain bertako hezkuntza langileen garapena ahalbidetzen dute. Norabide horretan hezkuntza langile ekipoei eskoletako errealitateak eraldatzeko indar-guneak direlarik.

Hezkuntza langileen ardura da aldaketa eta beraz, berrikuntza. Baina baita, haiekin batera, familia, jendarte-eragile eta hezkuntza-administrazioena ere. Hezkuntza

langileek, ikasleek, familieek eta/edo haien ordezkari legalek, jendarte-eragileek, denek hartzen dute parte eskola inklusiboan, denen artean osatzen dute komunitate zentzua eta sarea. Beraz, aldaketaz ari garenez, ikastetxeek beraien barneko eta kokatzen diren komunitateko beharrei erantzuteko konpromisotik abiatu behar dira. Aipatutakoaren haritik, ikastetxeak jakintzaren sorkuntzarako eta hezkuntza-praktikak hobetzeko eragile izan behar dira. Sorkuntza prozesuak gaur egun dialogikoa eta partekatua izan behar du, eta hedatzeko kultura duena. Horrela, gertuko errealitatearen eraldaketa eta jendarte berrikuntzan eragingo du.

Aurrekoaren haritik, ikastetxeetan hezkuntza langile taldeen jarduna, Ikaskuntza edo Praktika Komunitate izatera bideratu behar da. Hau da, taldeko helburu komun bat izan, zentroko proiektuarekiko talde konpromisoa, taldekideen partaidetza ahalbidetzen duen antolaketa eta ezagutza partekatzea eta hizkuntza komun bat izatea.

Beraz, LOMCEk ezarri nahi duen ikastetxeetako zuzendaritza eta kudeaketa ereduaren aurrean, lidergo partekatuaren eredua jarraitzea proposatzen da. Hezkuntza langileak goitik ezarritako hobekuntzen inplementazio hutsean aritzea baino hobekuntzen identifikazioan eta eraikuntzan inplikatzeko dituzten liderrak. Fokua, beraz, hezkuntza langileengan jartzen da, hauen konpetentzien garapenean, eta ez lidergo bakarrean eta boterean.

Hau honela izateko, funtsezkoa da azken urte luzeetan gertatzen ari denaren kontrako norantzan murrizketa politikak alde batera utzi eta kalitateko hezkuntza bermatu ahal izateko guztiz beharrezkoak diren baliabideak ahalbidetzea, bai plantillen aldetik, bai prestakuntza baliabideak, baita baliabide materialak ere. Bide honetan, ezinbestekoa da hezkuntzan diharduten langileen lan-baldintzak hobetzea.

3.4. Herri hezitzaileak: eskola eta komunitatearen parte hartzea eta elkarlana.

Kontutan hartuta bizi garen jendartearen beharrak eta eskakizunak eskolaz harago doazela eta hauek asetzeko erakunde publikoen esku soilik ez dagoela, erakundearen arteko sare-lanak eskolarekin herritar ororen ongizatea jomuga izan behar du.

Ikasgelatik at egon badaude beste ikaste eremu batzuk ere (Life Wide Learning), non ikaskuntza esperientzia esanguratsuak ematen diren jaiotzen garenetik hil arte.

Esaterako, katean, herrian, aisialdirako espazioetan eta abar. Beraz, eremu guzti hauek ere aintzatetsiak izan behar dira.

Herria subjektu hezitzaile moduan ulertzen dugu, eta hemen kokatzen dugu ikaslearen eskubideen bermearekiko komunitateko eragilearen erantzunkidetasuna eta partaidetza printzipioak.

- Herritarrak eta herria protagonista eta subjektu gisa irudikatzea: komunitateak bere burua eraikitzeke duen gaitasuna aintzatetsiz, eta esanahi partekatuetan oinarritutako egitura komunitarioak eraikiz. Bide honetan, komenigarria litzateke herri eta auzoetan hezkuntza mahaiak edo batzordeak bultzatzea.
- Parte hartzea egikaritzea: norbanako eta kolektiboek erabakitze prozesuetan ahotsa izateko eskumena, gaitasuna eta aukerak sortzea.
- Elkarlan eta lankidetzan oinarrituta lan-moldeen beharra: bai inplikazioak baita parte-hartzeak ere aurrez pertsonen eta taldeen arteko konexio beharra dute. Horretarako ezinbestekoa da interes edo behar komunak eta osagarriak aitortzea, erantzukizun sozialerako balio berberak partekatzen dituztenak.
- Norberaren kulturaren eta hizkuntzaren alde egitea: Oinarri kulturalak -mito eta kulturaren tradizioa, hizkuntza, mundu ikuskera eta ideologia- gordetzea, ondo kudeatu, oinarri hauen arabera egungo egiturak eraldatzea eta etorkizuna proiektatzeko erabiltzea. Horretarako beharrezkoak dira lekuan lekuko herri curriculumak osatzea, herritarren identitatearen garapena bermatzeko.

Beraz, lau gakotan laburtu dezakegu herri hezitzaile baten izaera eta egitekoa:

- *Pertsonak ardatz gisa:* Herritarren bizitza barne hartzen duen proiektua, hauek protagonista bilakatuz.
- *Hezkuntza eragileak egitasmoaren muina:* tokiko administrazioaz gain, elkarte, erakunde, hezkuntza zentro eta eragileei ere badagokion proiektua.
- *Izaera hezitzailea:* Helburutzat zentzu hezitzailean eta elkarlanean politikak eta jarduerak garatzea duena.
- *Xedea:* herritarren bizi-kalitateari eragitea, herritarren izaera eta demokrazia parte hartzailearen eta solidarioaren baliotan aritzeko asmoa duena.

4. Arlo curricularra

4.1. Nolako jendartea nahi dugun, halako hezkuntza sistema eraikiko dugu

Hezkuntza Sistemak paper garrantzitsua dauka jendartearen kohesioan eta garapenean. Gurean, Euskal Herritik eta Euskal Herrirako eraikitako hezkuntza-proposamena behar dugu. Euskal Herriko eragileek adostutako ardatzetan gorpuztuko dena. Modu horretara antolatutako Hezkuntza Sistemak egonkortasuna, atxikimendua eta kalitatea bermatzen du, horrela erakutsi baitigute arrakasta duten Hezkuntza Sistemek.

Pertsonen eta jendartearen garapena prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu, eta ez prozesu indibidual moduan. Pertsonen eskubideak bermatu, beharrei erantzun eta hauek komunitateko kide gisa garatzeaz gain, komunitateko beharrak ere ardatz gisa hartu beharko liratekeela pentsatzen dugu.

Kalitatezko eskolak bazterketa eza ziurtatzeko elementu gakoa dira.

Komunitatearekin modu kohesionatuan jarduten dakitenak. Finean, ikasle guztien ikaste prozesua eta garapena hobetzen duten eskolaz ari gara.

4.2. Curriculumaren antolaketa

Gure herritik egindako, gure inguruneko errealitate sozial eta hezitzaile anitzei irekita egongo den, eskubideen berma ardatz, inklusio eta berrikuntza irizpideak garatzea ahalbideratuko duen eta inguruneaz nola kolektiboki adostutako euskal identitatearen garapenez konprometituta egongo den curriculum ereduaren gainean eraiki behar dugu Euskal Hezkuntza Sistema.

Hona hemen Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak defendatu beharko lituzkeen oinarritzko Hezkuntza Xedeak:

- Pertsona gisa garapen integrala lortzea, pertsonaren alderdi guztiak aintzakotzat hartuz eta garapena posiblea egingo duten bideak eskainiz. Hezkuntza kalitatezkoa izango da, baldin eta pertsona guztiei bizitza sozialeko alderdi guztietan parte hartzea ahalbidetuko dioten konpetentzia praktiko eta gaitasunak bermatzen bazaizkie, ikaskuntzarako eta bizitza aktibora iragateko programetara sarbidean aukera berdinak edo ekitatiboak ziurtatuz.
- Euskal kulturaren oinarritzko elementuak eskuratzeko, hots, euskal herritar gisa bere nortasuna eraiki ahal izateko jakintza eskuratzeko eta jakintza hauek modu kontziente eta integratuan erabiltzea, bizitzaren maila guztietako egoerak interpretatzeko, aurre egiteko eta bide berriak eraikitzeko.

4.3. Oinarrizko kompetentziak curriculumaren ardatz

Testuinguru honetan oinarrizko kompetentzien garrantzia azpimarratu nahi dugu. Pertsonak garatu beharreko ahalmen modura ulertzen ari gara kompetentziak, jakintza eta trebetasunetatik haratago doan ahalmen integratu modura ulertuz, testuinguru zehatzetan sortzen diren egoera konplexuei erantzuteko modu eraginkorrean erabilitako ahalmen modura, hain justu.

Aipatutako markoan curriculumaren erreferente nagusia oinarrizko kompetentziak izan behar dira. Oinarrizko kompetentzien garapena ezagutza arlo ezberdinetako ikaste-testuinguru bidez ahalbidetuko da. Testuinguru horretan berariaz sortutako ikaste-egoerak baliatuz aipatutako kompetentziak garatu eta ebaluatuko dira.

Aurretik aipatutako xedeei lotuta, euskara ardatz hartuta eta Euskal Herriko errealitate historiko eta kulturalaren ezagutzatik abiatuta, mundua interpretatu, bertan modu egokian moldatu eta etorkizuna eraikitzeko kompetente izango diren herritarrak eta jendartea izan beharko lituzte helburu gure hezkuntza sistemak.

4.4. Oinarrizko kompetentziak garatzeko marko metodologikoa

Kompetentzien garapenari zuzendutako marko metodologikoak, hots, ezagutza modu eraginkorrean sortu eta erabiltzeko aukera ematen duen marko metodologikoen sormena eta parte-hartzea ikaskuntzarako oinarrizko gako bihurtzen dira.

Sormena, eszenatoki anitzak aurreikusi eta egoera berriei aurre egiten ikastearekin lotu ohi da, alternatiba eta ondorio ezberdinak baloratuz eta erantzun ezberdinak sortuz. Parte-hartzeak berriz, elkarrekin, elkar-lanean, elkarrizketan eta eztabaida kritikoan oinarrituz ikastea esan nahi du.

Ezaugarri hauek, beraz, dezente aldentzen dira irakaskuntzan ardazturiko ikaskuntza prozesuetatik, non ikastea egokitzapenez lotzen den eta parte-hartzea onarpenaz. Batetik bestera dagoen alde horrek hezkuntza berrikuntza oro gidatu beharko lituzke.

Izan ere, arazo konplexu, dimentsio anitzeko eta globalei erantzuteko gai izango diren pertsonak garatu nahi badira, ezagutzaren erreprodukzioa baino haratago, sormena, auto-erregulazioa eta barne motibazioa bermatzen duten espazioak sortu behar dira ikaste-irakaste prozesuei lotuta.

Horren harira, aurrez esan moduan, ikasgelatik at egon badaude beste ikaste eremu batzuk ere, non ikaskuntza esperientzia esanguratsuak ematen diren jaiotzen garenetik hil arte, esaterako, kalean, herrian, aisialdirako espazioetan eta abar, eta aukera hauek sistematikoki erabili behar dira ikaste-irakaste prozesuak garatzeko.

4.5. Ebaluazio markoa

Benetako ebaluazioaren ikuspegiarekin lotzen dugu ebaluazioa. Ebaluazio honek ondoko berezitasunak ditu:

- Testuinguratua: ebaluaziorako egoera errealak proposatzea.
- Askotariko dimentsiokoa: ezagutza anitzen erabilera ahalbidetzen duen ebaluazioa.
- Dinamikoak: denboralizazioari dagokionez prestakuntza eta garapena eskatzen duen ebaluazioa. Ikaste prozesuaren une desberdinetan kokatzen den ebaluazioa:
- Hasieran: aurre ezagutzak, esperientziak, jarrerak eta ohituren identifikazioak bermatu behar du ebaluazioa.
- Prozesuan, auto-erregulazioa sustatzen dituzten ebaluazio jarduerak.
- Bukaeran, Feedbacka eman edo-eta hausnarketa bultzatzen dutenak.
- Integratu: Ezagutza anitzen erabilera bultzatzeaz gain ezagutzen arteko integrazioa eskatzen duen ebaluazioa.
- Laguntzak. Ikaste prozesuan, elkarlanean eta berdinkideen artean egindako ebaluazioak garrantzia hartu du.
- Aurretik zehaztutakoa eta partekatutakoa. Ebaluazio irizpideak ezagutzeak ikaste prozesua esanguratsua eta demokratikoa egiten du, eta auto-erregulazio estrategien garapena ahalbidetzen du.

5. LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitzeko estrategia eta baliabideak

5.1. Pedagogia eta curriculum

LOMCEk lehen eta bigarren hezkuntzako ikasgaiak 3 talde nagusitan banatzen ditu: Ardatzak (troncales), Berariazkoak (específicas), Erkidegoek egituratzekoak (libre configuración autonómica) (ikus ikasgaien banaketa maila bakoitzean).

Espaniar Gobernuak LOMCErekin ikasgai ardatzen oinarritzko edukia eta hauen zein kanpo ebaluazioen bidez curriculumaren erabateko kontrola lortu nahi du.

Honez gainera, indar berezia ezartzen du datuen edo informazioaren ezagutzan eta hauen inguruko ebaluazioan, benetako hezkuntza berritzaile eta integrala oztopatuz.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak beraien curriculum dekretuetan LOMCEk inposatzen dituen neurriak ez sartu eta gida honetan planteatzen diren irizpideen baitako curriculum dekretuak eratu.
2. Euskal Herriko errealitatea bere dimentsio ezberdinetan (linguistikoa, kulturala, soziala, historikoa, geografikoa, politikoa...) eta oinarrizko kompetentzien garapena bermatuko duten curricula eta pedagogia lantzea hezkuntza komunitatea osatzen duten guztien artean.
3. Aurrekoari lotuta, herri nahiz eskualdeko nortasun elementuetan oinarriturik tokian tokiko curriculum edota hezkuntza proiektuak eta metodologiaren inguruko hausnarketa eta ereduak garatu.
4. Ildo honetan, ikastetxe bakoitzean sortzen diren curriculum, hezkuntza proiektuak, material pedagogikoak, etab. denon eskura egon eta elkarbanatzeak garrantzia berezia du, eta hori ahalbidetzen ahalegindu behar gara.
5. Ikuskariek ikastetxeetan hezkuntza eragileen artean adostutako konpromisoerik babesa eman diezaietela.
6. Irakasle eskolek eta Berritzeguneek / Irakasleentzako Laguntza Zentzok, hezkuntzako langileen prestakuntza eta eguneratzean duten garrantzia aintzat hartuta, gida honen baitako elementuak jorra ditzatela.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan edota kontrol eta zigorrerako neurriak hartu ala ez erabakitzerakoan.
2. Ikastetxeetako zuzendaritzek, hezkuntzako langileek, familiek, ikasleek, herritarrek.

5.2. Hezkuntza pertsonen eta jendartearen garapenaren zerbitzura

LOMCEren oinarrian hezkuntza ulertzeko guztiz ikuspegi atzerakoia gailentzen da prozesu eta kompetentzien garapena alde batera utzi eta edukien transmisioan oinarrituriko ereduak lehenetsiz.

Honi hezkuntzaren erabateko ikuspegi ekonomizista eta merkantilista gehitzen zaio, hezkuntza pertsonen eta jendartearen garapen integralaren baitan kokatu beharrean enpresen eta merkatuen beharretara bideratu nahi delarik. Horren adibide dira "Actividad emprendedora y empresarial" bezalako ikasgaiak sartzeko ahalegina edo

Lanbide Heziketa Duala ezartzea. Eta honi guztiari lotuta, kanpo ebaluazioen edukia nork erabakiko duen eta zein irizpiderekin oso kezkarria gertatzen da.

Honez gainera, espainiar gobernuari gustatzen ez zaizkion jendarte ikuspegiak ezabatzeko, balio atzerakoi eta merkantilistetan doktrinatzeko eta estatuan dauden nortasun nazional ezberdinak desagertzeko ahalegina da hezkuntza erreforma. Besteak beste, "Educación cívica y constitucional" eta nazionalismo espainiarraren oinarri diren edukiak curriculum osoan txertatzen dira eta modu berezian Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzan zeharka lantzea arautzen da.

Modu berean, LOMCEk, erlijio ikasgaia edo balio zibiko eta sozialak aukeratzera derrigortzen du, Espainiar Estatuaren eta Vaticanoaren arteko akordioak bere horretan mantentzen ditu.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak beraien curriculum dekretuetan LOMCEk inposatu nahi dituen ikuspegi atzerakoi, merkantilista eta doktrinatzailerik ez sartu, hezkuntza integral, laiko eta aurrerakoi baten baitakoak baizik.
2. LOMCEk inposatu nahi dituen eduki eta ikuspegi atzerakoi, merkantilista eta doktrinatzailerik curriculumetik atera eta hezkuntza integral, laiko eta aurrerakoi baten baitan kokatu eta landu. Besteak beste, ikasgai hauen eta bertan inposatu nahi den edukiaren orde mundu ikuskera eta sinesmen ezberdinen lanketa, giza-balioen hezkuntza, aniztasuna, ezberdintasunetikiko errespetua, kritikotasuna, elkartasuna, justizia soziala, inguruarekiko interdependentzia eta errespetua, jasangarritasuna, etab. oinarri izango dituen hezkuntza bultzatu.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan edota kontrol eta zigorrerako neurriak hartu ala ez erabakitzerakoan.
2. Ikastetxeetako zuzendaritzek, hezkuntzako langileek, familiarek, ikasleek.

5.3. Espainiar gobernuak kontrolaturiko ebaluazioei aurre. Gure ebaluazio prozesu propioa

Lehen Hezkuntzako 3. mailan ikasle guztiei ebaluazio pertsonalizatua egingo zaie. Ebaluazioa eta emaitzen baitako neurriak ikastetxeen esku.

Lehen Hezkuntzako 6. mailan ikasle guztiei ebaluazio pertsonalizatua egingo zaie. Ebaluazioaren edukiak espainiar gobernuak ezarriko ditu eta zuzenketa ikastetxetik

kanpoko espainiar estatuko irakasleen esku egongo da. Ebaluazioaren emaitzak diagnostiko eta orientazio moduan balio izango dute.

Bigarren Hezkuntzako 4. mailan ikasle guztiei ebaluazio pertsonalizatua egingo zaie. Ebaluazioaren edukiak espainiar gobernuak ezarriko ditu eta zuzenketa ikastetxetik kanpoko espainiar estatuko irakasleen esku egongo da. Ebaluazioa gainditu beharko da Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortu ahal izateko (Titulu-puntuazioaren %30 izango da).

Batxilergoko 2. mailan ikasle guztiei ebaluazio pertsonalizatua egingo zaie. Ebaluazioaren edukiak espainiar gobernuak ezarriko ditu eta zuzenketa ikastetxetik kanpoko espainiar estatuko irakasleen esku egongo da. Ebaluazioa gainditu beharko da Batxilergoko Titulua lortu ahal izateko (titulu-puntuazioaren %40 izango da).

Azken ebaluazioez gain, orain egiten den moduan, erkidego bakoitzeko gobernuak ebaluazio diagnostikoak egin ditzake.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak espainiar estatutik inposaturiko ebaluazioei uko egin.
2. Estatuak inposaturiko kanpo ebaluaziorik ez egin. Hezkuntzako langileek, familieek eta ikasleek ez parte hartu (besteak beste egun horretarako aldarrikapen festa orokor bat antola dezakegu).
3. Modu berezian, DBH 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako kanpo azterketei ("errebalidei") aurre egin eta ondorioetatik babesteko konpromisoa eskatu euskal erakundeei.
4. Gida honetan proposatzen dugun ebaluazio markoaren baitako ebaluazio prozesuak garatu.
5. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak, Euskal Herriko unibertsitate eta enpresei gure hezkuntza sistemaren baitako heziketa burutu duten ikasleak onartzeko konpromisoa eskatu eta titulazio propioa garatzeko pausoak eman.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan edota kontrol eta zigorrerako neurriak hartu ala ez erabakitzerakoan.
2. Ikastetxeetako zuzendaritzek, hezkuntzako langileek, familiek, ikasleek.

5.4. Eskola demokratiko eta parte-hartzailea

Orain arte ikastetxe publikoek, legez, hezkuntza komunitatea osatzen duten kide ezberdinen parte-hartzea eta ikastetxearen antolakuntza eta funtzionamenduan erabakitze ahalmena zuten Organo Gorenak zituzten. Era berean, zuzendaria erabakitzeko hautapen batzordean 2/3eko pisua zuen.

LOMCEk Organo Gorenaren erabakitze ahalmenak kontseilu funtzio bihurtzen ditu, hauek zuzendariari emanez, eta zuzendaria erabakitzerakoan ere bere pisua %50era mugatzen du.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Ikastetxe bakoitzean kide guztien (zuzendaritza, hezkuntza-langile, familia, ikasle eta herritarren) parte-hartzea eta erabakitze ahalmena bermatu eta erabaki guztiak modu parte-hartzaile eta demokratikoan hartuko direnaren konpromisoa lotu.
2. Ikastetxeetan batzarrak sustatu.
3. Herri eta auzoetan hezkuntza mahai edo batzordeak bultzatu.

Nork du ardura nagusia:

1. Ikastetxeetako zuzendaritzek, hezkuntzako langileek, familiek, ikasleek eta herritarrek.
2. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek bultzatzerakoan edota kontrol eta zigorrerako neurriak hartu ala ez erabakitzerakoan.

5.5. Ikasle euskaldun eleaniztunak

LOMCEk gaztelania hezkuntza ibilbidearen oinarrizko hizkuntza izateko derrigortasuna ahalbidetzen du. Hau da, beti bermatu behar da gaztelania oinarrizko hizkuntza moduan. Honek ezinezko bihurtzen ditu murgiltze ereduak eta edozein kasutan euskara hezkuntza ibilbidearen oinarrizko hizkuntza duten ereduak.

Euskal Herrian eginiko ebaluazioetatik ondoriozta daiteke hizkuntza ereduaren sistemak erabateko euskalduntzea ez duela bermatzen, eta argi geratzen da benetako euskalduntze eta eleaniztasuna bermatzeko murgiltze eredurantz jo behar

dugula. Helburu nagusia euskaldun eleaniztunek osatutako Euskal Herria lortzeko bidean belaunaldi berriak euskalduntzea delarik.

Modu berean, eskolatik harago ere euskalduntze planifikazioaren beharra agerikoa da.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak hizkuntza eskubideak errespetatu eta ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko erabakiak, estrategiak eta baliabideak ezartzea.
2. Eskoletan euskara hizkuntza-ardatza izateko konpromisoa hartzea, bai ikasgelan baita eskolako gainerako eremu guztietan ere.
3. Auzoetako edo herrietako gainerako erakunde eta eragileekin ikastetxeko eremutik haratago zabalduko den hizkuntza proiektu osatua aplikatzea, ikasleak euskalduntzeaz gain, beste hizkuntza batzuk ikasteko ateak zabaltzeko.
4. Hezkuntza ibilbidean zehar euskara eta gainerako hizkuntzen gutxieneko ezagutza maila finkatzea (derrigorrezko eskolaketa bukatzerakoan europear markoko erreferentziak eta lorpen mailak finkatzea, hau da, C1 hizkuntza ofizialetan eta B1 hirugarren hizkuntzan).

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan.
2. Ikastetxeetako zuzendaritzek, hezkuntzako langileek, familiek, ikasleek eta herritarrek.

5.6. Berdintasuna, hezkidetza eta eskola inklusiboa

LOMCEk ikasleen arteko sailkatze edo mailakatzea dakar berarekin eta berdintasunaren aurkako atzerapauso larria suposatzen du. Besteak beste, DBH 3. ikasleen banaketa goiztiarra ematera bultzatzen du ikasleak ikasketa akademikoetara ala ikasketa aplikatu eta Lanbide Heziketara bideratzeko.

Modu berean, hezkuntza erreformaren artikulua ezberdinetan aniztasun funtzionala¹ duten ikasleei arreta berezia emateko beharra azpimarratzen du, baina ez du inolako neurri zehatzik eta baliabiderik aurreikusten, ezta onartzen ere; are gutxiago gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkidetza bidean.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

¹ "Aniztasun funtzionala duten ikasleak" terminoa erabiliko dugu hemendik aurrera orain arte behar bereziak dituzten ikasleak deitura ordezkatzeko. Egokiagoa delakoan gaude.

1. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak gida honetan planteatzen diren antzeko irizpideen baitako erabakiak hartu.
2. Ikastetxeetan ez egin banaketa goiztiarrik eta administrazioari exijitu aniztasun funtzionalari modu egokian erantzuteko baliabideak.
3. Familiek ez baimendu beraien seme-alabekin banaketa goiztiarra egitea.
4. Eskola materiala eta zerbitzuak modu errezean lortzea exijitu (doakotasuna, beken handitzea eta zabaltzea, laguntza bereziak...)
5. Eskoletako programazioak (helburuak, edukiak, metodologia, antolaketa, materialak, harremanak, hizkuntza, espazioak, ebaluazioa) modu hezkidetzailan diseinatzea eta garatzea.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura eta zeresan zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan.
2. Ikastetxeetako zuzendaritzek, hezkuntzako langileek, familiek, ikasleek.

5.7. Kalitateko hezkuntza guztionzat. Eliteko ikastetxerik eta ikastetxeen arteko konpetentziarik ez.

LOMCEk erkidegoetako gobernuak behartzen ditu ebaluazio ezberdinetan ikastetxeek lorturiko emaitzak publiko egitera. Honek, guk nahi dugun heziketa inklusibo eta integralarekin zerikusituz ez duten irizpideen baitan ikastetxeak sailkatzea bultzatzen du, beraien arteko konpetentzia bultzatuz eta "eliteko" eta "bigarren mailako" ikastetxeak sortzeko arriskua handituz.

Kalitatea hobetzearen aitzakiatan, ikastetxeek ikastetxeen arteko lehia helburu duten espezializazio kurrikularra, bikaintasuna edo antzeko aukerak egin ditzakete, horretarako zuzendariei autonomia ematen zaielarik bai beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak hartzeko baita lanpostuak egokitzeko ere.

Espezializazio curricularra duten ikastetxeek Lanbide heziketako edo Batxilergoko plazetarako puntuazioaren %20 gorde ditzakete espediente akademiko ona duten ikasleentzat.

Zuzendariak lanpostu/langile batzuk libreki aukeratu edo berrantolatzeko aukera izango dute, betiere estatuak eta erkidego bakoitzak zehaztu eta baimenduta:

- Lanpostu jakin batzutarako eskakizun eta meritu bereziak eskatzeko aukera.
- Interinitatean dauden lanpostuetarako ordezkioak baztertzeko aukera.
- Lanpostu interino bat betetzen ari den irakaslearen jarraipena gauzatzeko aukera.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak LOMCEk ezartzen dituen neurri hauek inola ere ez bideratzea.
2. Ikastetxeek eta zuzendaritzek ikastetxeen artean lehiatu eta "eliteko" ikastetxe izatera bideratzeko espezializazio kurrikularra, bikaintasun "karrera" edo antzekoei uko egitea.
3. Espediente akademiko ona duten ikasleentzat plazak gordetzeari uko egitea.
4. Lanpostuak aukeratu edo berrantolatzeke edota interinitatean dauden lanpostuak baztertzeari uko egitea.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan edota kontrol eta zigorrerako neurriak hartu ala ez erabakitzerakoan.
2. Modu berezian ikastetxeetako zuzendaritzek.

5.8. Ikastetxeen autonomia eta hezkuntza sistema osoaren gaineko kontrol eta kudeaketa demokratikoa.

Aurrez esandakoari jarraituz hezkuntza sistemak herri eta auzoetako errealitate eta beharretan sakonago txertatu behar du, hezkuntza komunitatea osatzen duten guztien parte-hartzea handitzea eta kontrol eta kudeaketa demokratiko handiagoa.

Bestalde, hezkuntza erreformak itunpeko irakaskuntzan hainbat aldaketa ematen ditu, gehienak itunpeko ikastetxeei erraztasunak emateko, baina lan-baldintzen hobetzean edota kudeaketa eta kontrol publikoan pausorik eman gabe.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Ikastetxe guztietan hezkuntza komunitatea osatzen duten estamentu guztien parte-hartzea eta erabakitze ahalmena guztien esku izatea. Hau bermatzeko ikastetxeetako organo nagusiak demokratikoki antolatuta egotea.
2. Ikastetxeen titular diren erakundeek jasotzen dituzten funts publikoen erabilera adieraziko dute, euskal hezkuntza-sistemak ezarritako hezkuntza-helburuak aintzat hartuz eta gardentasunez erabiltzeko konpromisoa gauzatu. Horretarako diru sarreren eta hauen erabileraren erabateko kontrola bermatu beharko litzateke kontu ikuskaritzaren bitartez.
3. Hezkuntzako langile guztien kontratazioak hezkuntza eragileen parte hartzea bermatuko duten batzordetan egingo dira eta, era berean, kaleratzeen

kasuan ere hezkuntza eragileen parte hartzea eta *prozesu kontraesankor*² bat izatea bermatuko da.

4. Funts publikoak erabilia garatu izan diren eraikinek erabilera herrikoia bermatuko dute, eta ikastetxeen jarduna etengo balitz, eraikina administrazio publikoaren esku geratu beharko litzateke.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan.
2. Hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok hezkuntzako langile, familia, ikasle eta herritarrak.

5.9. Eskola porrota eta langabezia ezkutatzeko. Oinarrizko Lanbide

Heziketa.

Orain arteko CIP edo HLPP (PCPI)ak Oinarrizko Lanbide Heziketak ordezkatzeko dituzten DBHko 1go zikloa (DBH 3. maila) egina izanik (salbuespen moduan DBH 2. maila), gutxienez 15 urte eta gehienez 17, Oinarrizko Lanbide Heziketa egin eta dagokion titulua lortu ahal izango da (gutxienez bi urte eta gehienez lau urte).

Titulazio honek Erdi-mailako Lanbide Heziketara sarrera ahalbideratzen du eta DBH bukaerako azterketa finala egiteko aukera ematen.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. DBHko Orientatzaileek ez dezatela ikaslerik bide honetara bidera, kasu bereziak salbu (nolabait egungo HLPP(PCPI)-ekin gertatzen den moduan).
2. Familiek bide hauek ez hautatu, kasu berezietan salbu (nolabait egungo HLPP/PCPI-ekin gertatzen den moduan).
3. Zailtasunak izan ditzaketen ikasleekin, orientatzaile eta ikuskarien laguntzarekin, ikastetxean bertan ibilbide alternatiboak bilatu eta 15 urteko ikasleen kasuan salbuespen gisa soilik onartu (nolabait egungo HLPP (PCPI)-ekin gertatzen den moduan).

² Prozesu kontraesankor moduan ulertzen dugu aldean arteko aukera desberdintasuna bermatzen duen prozesua (epeak, frogarako medioak...), jokoan dauden interes desberdinen arteko konfrontazio egokia ziurtatuz, aldean parte hartzearekin, behin-betiko erabakia hartu aurretik.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan.
2. Hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok (hezkuntzako langile, familia, ikasle eta herritarrak).
3. Ikastetxeetako orientatzaile eta ikuskariak. Modu berezian, posible diren alternatiba guztiak jorratzeko eta salbuespen kasuak baloratzeko.

Oharra: EAEn Lanbide Heziketako Zuzendaritzak 2014-2015-etarako, 175/2007ko Dekretuari aldaketa egin dio LOMCEren atal honi eragozpenak jarri nahian, eta momentuz, urte batez bederen, ez da aplikatuko. “Prestakuntza iragankor integratuko programak” izeneko proposamena jarri du martxan (apirilaren 1eko 47/2014 Dekretua).

5.10. Lanbide Heziketa duala.

LOMCEan bertan forma zehatzik ematen ez bazaio ere, Lanbide Heziketa duala legearen ardatzetako bat da, eta ezarriko dela arautzen da. Patronalen eskakizun garrantzitsuenetako izan da eta legean bertan enprekin partekatuko den ardura izango dela adierazten da. Hots, enpresek hezkuntza sistemaren helburu eta diseinuan esku-hartze zuzena izango dute.

Hau guztia honela eta oinarritzko baldintza eta betekizunak espainiar gobernuak arautuko dituela kontuan izanik, Lanbide Heziketaren egitura eta kontrola goitik behera alda daiteke, hezkuntza eremu hau erabat enpresen interes eta formazio beharren zerbitzura jarritz.

Gainera, enpresek etengabe eskulan merkea lortzeko tresna ere izan daiteke.

Gogoratu beharrean gaude Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak modu berezian bide honetan pauso nabariak emanak dituztela eta LOMCEk Lanbide Heziketan ezarri nahi dituen aldaketa ugaritan jada aintzindari direla.

Aurre egin eta gure hezkuntza propioa garatzeko neurriak:

1. Ikastetxeetako parte-hartze eta erabakitze organoetan nahiz Kontseilu Sozialetan sindikatuen parte hartzea indartu, Lanbide Heziketak ikasleen heziketara helburu duen planteamenduari erantzuten diola bermatzeko eta lan-moduluak eta laneko praktiketako lan baldintzak “egokiak” izan daitezen.
2. Ardura pedagogikoa eta curricularra beti ikastetxeen esku izatea eta inoiz ez enpresen esku. Ondorioz Hezkuntza Sailaren esku egon beharko luke eta ez Industria edo Enplegu Sailaren menpe.

3. Ikasleak enpresen interesen baitan soilik erabiltzen diren heinean, lan-baldintza duinak errespetatzen ez diren heinean edota esplotazio egoerarik ematen den heinean salaketa publikoa egitea.
4. Ikasleak eskulan merkea izateko aukera guztiak mugatu enpresa eta ikastetxeen arteko akordioetan, prestakuntza helburuak eta lan-baldintza duinak bermatuz.
5. Ikastetxeetan ikasleei informazio "osoa eta zehatza" eskaini lan-modulu edo praktiketarako izen-ematea irekitzean ikasleen eskubide eta lan-baldintza duinen aldeko neurriak agertuz.
6. Enpresaren aldetik tutoretza eraman behar duen pertsonaren "prestakuntza" zehaztea, gutxieneko jakintza pedagogikoen jabe izan behar duelarik.
7. Lanbide Heziketako langileen artean ikasleen eskubide eta lan-baldintzen defentsa sustatu.
8. Praktikak eta lan-moduluak egiten diren enpresetan langile-batzordeek ikasleen eskubide eta lan-baldintza duinak bermatu, eta praktika hauek enpresetako lanpostuak gutxitzeko ez direla baliatuko bermatu.

Nork du ardura nagusia:

1. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ardura zuzena dute neurri hauek ezartzerakoan edota indartzerakoan.
2. Hezkuntza Komunitatea osatzen dugun guztiok (hezkuntzako langile, familia, ikasle eta herritarrak).

5.11. Neurri hauek aurrera eramateak izan ditzaketen hainbat ondorio kaltegarri eta aurre egiteko moduak

Gida honetan LOMCEri aurre egin eta gure hezkuntza sistema propioa eraikitzeke proposatzen diren neurri eta pausoek izan ditzaketen hainbat ondorio azaldu aurretik, komenigarria deritzogu erasoaren tamaina eta inposizio berri hau aurrera eramaten bada familiek, langileek, euskal jendarteak eta gure hezkuntza sistemak izango dituen ondorio tamalgarriak lehen planoan ezartzea. Hau da, izan dezakegun ondoriorik okerrera LOMCE bera ezartzea da eta aurrez deskribaturiko neurriek momentu honetako hezkuntza sistema guztiz baldintzatzea eta gure herrian behar eta nahi dugun hezkuntza sistema garatzeko erabateko muga ezartzea dela deritzogu.

Horregatik, askoz ere okerragoak diren ondorio hauei aurre egin asmoz planteatu ditugu aurreko ataletako neurriak, jakitun neurri hauek ere beren ondorioak izan ditzaketela, baina denon artean ekiditen edo mugatzen ahaleginduko garela eta beti

ere kalte larriagoak eragin ditzaketen neurriei aurre egiteko asmoarekin proposatzen ditugula.

Hau honela, gida honetan proposatzen diren hainbat neurrik ez dute inolako ondorio kaltegarririk ez langileentzat ezta ikasle eta familientzat ere: eskola demokratiko eta parte-hartzailea egiten dutenak (5.4 atala), ikasle euskaldun eleaniztunak bultzatzen dituztenak (5.5 atala), berdintasuna, hezkidetzaz eta eskola inklusiboa indartzen dutenak (5.6 atala) edo ikastetxeen autonomia eta kontrol eta kudeaketa demokratikoa eskatzen dutenak (5.8 atala) esaterako.

Beste batzuk hartzearen ondorioz gobernu ezberdinek ikuskariak bidal ditzakete eta neurria hartzearen gaineko ardura dutenei espedienteak zabal diezaiekete: hezkuntza pertsonen eta jendartearen garapenaren zerbitzura jartzeko neurriak (5.2 atala) edo eliteko ikastetxeak eta ikastetxeen arteko konpetentzia ekidin nahi dutenak (5.7 atala).

Azkenik, badaude neurriak bai langileentzat bai ikasle eta familientzat ere ondorio kaltegarriak ekar ditzaketenak: Pedagogia eta curriculumari dagozkionak (5.1 atala) eta estatuko ebaluazio aurre egiteko neurriak (5.3 atala), modu berezian.

Kasu hauetan, gobernu ezberdinek (Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak edota Nafarroako Gobernuak) ikuskariak bidal ditzakete eta ikastetxeetako zuzendaritzari edota hezkuntzako langileei espedienteak ireki curriculum "ofiziala" betetzen ez aritzeagatik edota derrigorrezko azterketak ez egiteagatik, kasu honetan inhabilitaziora iristeko arriskua izanik.

Ikasle eta familien kasuan, Espainiar Estatuak kontrolaturiko curriculum honetan oinarrituriko kanpo-azterketei begira, DBH eta Batxilergoan froga hauek egiten ez duten ikasleak edota gainditzen ez dituztenak titulazio ofizialik gabe gera daitezke. Aurreko edozein eraso gertatuz gero ikastetxean bertan, herrian eta posible dugun gainerako ikastetxe guztietan salaketa egin eta mobilizazioa antolatzeke konpromisoa lotu behar dugu. Bide honetan, besteak beste, LOMCeri aurre egitea erabaki duten langile eta pertsona orori babeserako eskura ditugun baliabideak bermatuko ditugu.

Honek arazoa sor dezake baldin erabaki hauek langile, ikasle edo familia gutxi batzuk hartzen badituzte eta ikastetxe gutxi batzuetan soilik gertatzen bada. Aldiz, langile, ikasle eta familia ugarik eta ikastetxe askotan edo gehienetan aurrera eramaten bada, arazoa administrazioek izango dute. Izan ere, mila langile zigortzeak arazo handiak sortuko lizkieke, eta hasiera batean titulazio ofizialik gabe gera daitezkeen familia eta ikasle horiei irtenbideren bat eman beharko lieke.

Beraz garrantzia berezia hartzen du estrategia ongi eta modu zabalean antolatzeak.

5.12. Laguntzarako eta elkarlanerako tresnak

LOMCEri aurre egiteko eta gure hezkuntza propioa garatzeko 5.1 neurrian 4.puntuan azaltzen den bezala, ikastetxe, eragile, plataforma... bakoitzean sortzen diren curriculum, hezkuntza proiektuak, material pedagogikoak, etab. denon eskura egon eta elkarbanatzeak garrantzia berezia duelakoan, besteak beste, gurehezkuntzaeraiki.wordpress.com bloga prestatu dugu ikastetxe ezberdinetan sortzen den material eta ekimen ezberdinak elkarri adierazteko, eta guztiok toki ezberdinetan egiten ari denaren berri izan dezagun.

6. Interpelazioak

6.1. Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari interpelazioa.

- Ez dezatela LOMCEa aplika eta aurrez aipatu ditugun ildoetatik gure hezkuntza sistema propioaren eraikuntzan pausoak eman ditzatela.
- LOMCEri aurre egin eta hezkuntza propioaren eraikuntzan pausoak ematen dituzten langile, ikasle eta familien aurkako jarrerarik ez izatea eta inongo prozedura administratiborik ez burutzea.
- Gure hezkuntza sistema propioa egituratuko duen marko normatiboa garatu dezatela.
- Berritzeguneek eta Irakasleentzako Laguntza Zentroek gidan jasotzen diren edukien baitako prestakuntza eskaini dezatela.
- Euskal Herriaren baitako titulazio propioa garatze bidean pausoak eman ditzatela.

6.2. Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari interpelazioa

- Gure hezkuntza sistema propioa egituratuko duen marko normatiboa garatu dezatela.
- LOMCEren aurkako gaitzespen sinbolikoa ez da nahikoa. Legebiltzarrek beren eskura dituzten tresna legal guztiak indarrean jarri beharko dituzte LOMCEri aurre egiteko.

6.3. Udalei interpelazioa

- Euren herrietako ikastetxeetan LOMCEren ez aplikazioan eta gure Hezkuntza propioa garatzeko bidean, indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktiba ditzatela.

6.4. Alderdi politikoei interpelazioa

- LOMCEa ez aplikatzeko edo bere aplikazioa ekiditeko konpromisoa.
- Euskal Herrian gure hezkuntza sistema propioa egituratuko duen marko normatiboa garatzeko bitarteko guztiak jar ditzatela.
- Ordezkaritza duten instituzio guztietan (gobernu autonomiko, legebiltzar, aldundi, udal eta abarretan) LOMCEren aplikazioa ekidin eta gure hezkuntza propioa garatzeko ekimenak bultzatzea.
- Ahalik eta influentzi eremu zabalenetan LOMCEren inguruko informazioa zabaltzea, honen aplikazioaren inguruko ondorioen berri emanez.

6.5. Unibertsitate eta Irakasle Eskolei interpelazioa

- Unibertsitate eta Euskal Herriko unibertsitate eta irakasle eskolek gida honetan azaltzen diren eduki eta pedagogiaren baitako prestakuntza eskain dezatela.
- Euskal Herriaren baitako titulazio propioa garatze bidean pausoak eman ditzatela.

7. Konpromiso eta elkarlanerako bidea

Abiapuntutik aipatu moduan, hezkuntza lehentasun soziala izanik eta herri baten garapenerako gakoa, ezinbestez hezkuntza komunitate eta herritar ororen inplikazioa eta konpromisoa beharrezkoa dugu LOMCEri aurre egiteko, honen ez aplikazioa lortzeko eta nahi dugun hezkuntza guztion artean eraikitzeko.

Beraz, bide honetan lanean aritzeko prest den pertsona, eragile edo eta erakunde orori eskua luzatu nahi diogu eta elkarlanerako dei zuzena helarazi.

Ziur gaude gida honekin oinarri sendoa jarri dugula LOMCEri aurre egin eta gure hezkuntza sistema eraikitzerakoan. Sendoa diogu batez ere, tresna dinamikoaren izaeratik abiatuta tokian tokiko errealitate, erritmo, dinamika zein apustuak guztion artean eraiki ahal izateko bide komuna marrazten hasi garelako.

Guztion artean LOMCE geldiaraztea eta Euskal Hezkuntza Sistema Propioa eraikitzea lortuko dugu!!!

Oharrak:





gurehezkuntzaeraiki.wordpress.com

